## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA OSASUN SAILA LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-4971

198/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko industrietan eta saltegietan sortzen diren eta gizakiek jateko ez diren animalia-subproduktuei buruzkoa.

EEEko Kontseiluaren azaroaren 27ko 90/667 Zuzentarauaren bitartez, albaitaritza-arauak ezartzen dira ondoren zehaztutakoei dagokienez: animalia-hondakinak eraldatu eta ezabatzea, animalia-hondakinak merkaturatzea, animalietatiko edo arrainetatiko pentsuetan agente patogenoei aurre hartzea. Eta aipatu zuzentarauaz, bestalde, EEEko 90/425 Zuzentaraua aldatzen zen, eta honako printzipio hau ere ezartzen zen: animalia-hondakinak —nonnahindikoak zirelarik ere— pentsuetarako materialak ekoizteko erabil zitezkeen, betiere egoki tratatu ezkero.

Baina, elikagaien inguruan orain dela gutxi izandako krisiak direla-eta, Zientzia Batzorde Zuzentzaileak elikagaien gaineko zenbait irizpen eman ditu. Eta egiten duen ondorioaren arabera ondokoak ezin dira izan elikagai-katean: sanitate-ikuskapenaren arabera gizakiek jateko ez diren animalia-subproduktuak.

Ondorioz, aipatu subproduktuei dagokienez, Europako Batasunak zenbait erabaki eta neurri hartu ditu, besteak beste, 2002ko urriaren 3ko 177/2002 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandakoa, zeinetan osasun-arauak finkatzen baitira gizakiek jateko ez diren animalia-subproduktuei dagokienez. Erregelamendu horrek indargabetu egiten du 90/667/EEE Zuzentaraua, eta, bestalde, era bateratu eta argian arautu egiten ditu animalia-subproduktuen bilketa, garraioa, biltegiratzea, manipulazioa, eraldaketa eta erabilera edo ezabaketa, betiere aipatu subproduktuek ez dezaten sor inolako arriskurik animalien edo gizakien osasunean.

Erregelamendu horretan arautzutako subproduktu batzuk, Arriskuko Material Espezifikoek (AME), dekomisoek eta animalia hilek euren araudia dute Euskal Autonomia Erkidegoan, hain justu ere ondoko dekretuaren bitartez: 329/2001 Dekretua, azaroaren 27koa, jateko animalien entzefalopatia espongiforme kutsakorrak aurreikusi, zaindu eta kontrolatzeko neurriena. Eta araudi horrek errespetatu egiten ditu delako erregelamenduaren edukiak.

Dekretu honen bitartez beste urrats bat egin nahi da animalia-subproduktuen arloa antolatzeko bidean, 1774/2002 (EE) zk.ko Erregelamenduaren 3. kategorian sartutako zenbait subproduktu arautuaz, hain jus-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO, DEPARTAMENTO DE SANIDAD DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-4971

DECRETO 198/2003, de 29 de julio, de subproductos animales no destinados al consumo humano generados en las industrias y comercios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Directiva 90/667/CEE del Consejo, de 27 de noviembre de 1990, por la que se establecen las normas veterinarias relativas a la eliminación y transformación de desperdicios animales, a su comercialización y a la prevención de agentes patógenos en los piensos de origen animal o a base de pescado, y por la que se modifica la Directiva 90/425/CEE, establecía el principio de que todos los desperdicios animales, independientemente de cuál fuera su origen, podían utilizarse para la producción de material para piensos tras recibir el tratamiento oportuno.

No obstante, con motivo de las recientes crisis alimentarias el Comité Director Científico ha emitido una serie de dictámenes a este respecto. Su conclusión esencial es que los subproductos procedentes de animales no aptos para el consumo humano de acuerdo con la inspección sanitaria no deben entrar en la cadena alimentaria.

Como consecuencia, la Unión Europea ha adoptado decisiones y medidas en relación con estos subproductos, entre las que cabe destacar el Reglamento (CE) nº 1774/2002, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de octubre de 2002, por el que se establecen las normas sanitarias aplicables a los subproductos animales no destinados al consumo humano. Este Reglamento deroga la citada Directiva 90/667/CEE, y regula de manera conjunta y clarificadora la recogida, transporte, almacenamiento, manipulación, transformación y utilización o eliminación de todos los subproductos animales, con el objeto de impedir que estos productos entrañen algún tipo de riesgo para la salud humana o animal.

Parte de los subproductos animales regulados en este Reglamento, los Materiales especificados de riesgo (MER), los decomisos y los animales muertos, tienen su propia normativa en la Comunidad Autónoma del País Vasco a través del Decreto 329/2001, de 27 de noviembre, de medidas de prevención, vigilancia y control de las encefalopatías espongiformes transmisibles de los animales de abasto, normativa que respeta los contenidos de dicho Reglamento.

Con el presente Decreto se pretende dar un paso más en la ordenación de la materia de subproductos animales, regulando algunos de los subproductos incluidos en la categoría 3 del citado Reglamento (CE) nº

tu ere animalientzat eta gizakientzat arriskurik ez izanik animalien elikagai-katean sar daitezkeenak edo baimendutako beste erabilera batzuetarako izan daitezkeenak, betiere, bilketari, garraioari, biltegiratzeari, manipulazioari, eraldaketari eta erabilera egokiari dagokionez aipatu erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Eskumen banaketaren sistema, indarrean dagoena, kontuan izan ezkero, bere lurraldean eta aurreikusitako neurriak betearazteko, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio agintaritza egokiak izendatzea, hartarako beharrezko diren arauzko xedapenak emanez eta antolamenduzko neurriak hartuaz.

Eta esandakoaren ondorioz, dekretu honen bitartez, batetik, egoera berrian beharrezkoak diren arauzko egokitzapenak jasotzen dira, eta, bestetik, arautu egiten dira ondoko animalia-subproduktuak: birziklatu eta animalien elikagai-katean sar daitezkeenak edo Euskal Autonomia Erkidegoan zilegi diren beste erabilera batzuk izan ditzaketenak.

Erregulazio hau berraztertu egin behar da, aplikatzerakoan lortutako esperientziarekin, eta, edonola ere, indarreango araudia onartu ahala egingo diren aldaketekin, eta bai arlo honi eragiten dioten irizpide berriak ezar ditzaten batzorde zientifikoek egindako txostenekin ere.

Dekretu hau prestatzeko, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Nekazaritza Sailak kontsultatu dira, eta bai nekazaritzako elikagaien sektorearen ordezkaritza duten elkarteak eta erakunde profesionalak ere.

Eta esandakoaren ondorioz, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriaz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposaturik, eta Jaurlaritzak Kontseiluak, 2003ko uztailaren 29an egindako bileran, eztabaidatu eta onartu ostean, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Helburua.

Okelazko elikagai-katean sortutako animalia-subproduktuen bilketa, garraioa, biltegiratzea, manipulazioa, eraldaketa eta erabilera egokia edo ezabaketa arautzea da dekretu honen helburua, betiere EAEko saltegi eta industriei dagokienez, barne direlarik publikoarentzako salmentak egiten dituzten txikizkako saltegiak. Bestalde, aipatu produktuak merkaturatzean aplikatu beharreko arauak ezartzea ere bada dekretu honen helburuetariko bat.

1774/2002, que no suponiendo riesgo para la salud humana o animal pueden entrar en la cadena alimentaria animal o destinarse a otros usos permitidos, siempre y cuando se respeten las condiciones de recogida, transporte, almacenamiento, manipulación, transformación y adecuada utilización establecidas en el mismo.

Teniendo en consideración el sistema de distribución competencial vigente, corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco desarrollar la normativa referenciada en su ámbito territorial y designar a las autoridades competentes para ejecutar las medidas previstas, adoptando las medidas organizativas y disposiciones normativas precisas para ello.

Por todo lo expuesto, el presente Decreto recoge las adaptaciones normativas que requiere la nueva situación y regula aquellos subproductos de origen animal que pueden reciclarse e integrase en la cadena alimentaria animal o destinarse a otros usos permitidos en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Esta regulación deberá ser revisada a la luz de la experiencia obtenida en su aplicación y, en todo caso, por cambios que se produzcan en la normativa vigente a medida que se vaya aprobando en un futuro, así como por nuevos informes de los comités científicos que establezcan nuevos criterios que afecten a esta materia.

En la elaboración del presente Decreto han sido consultados los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, así como las organizaciones profesionales y asociaciones representativas del sector agroindustrial.

En su virtud, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta de los Consejeros de Industria, Comercio y Turismo, de Sanidad, de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, y de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 29 de julio de 2003,

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.–*** Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular la recogida, transporte, almacenamiento, manipulación, transformación y adecuada utilización o eliminación de los subproductos de origen animal generados en la cadena alimentaria cárnica en las industrias y comercios de la C.A.P.V, incluidos los establecimientos minoristas de venta al público, así como establecer las normas aplicables a la comercialización de dichos subproductos.

*2. artikulua.–* Aplikazio-eremua.

1.– Okelazko produktuen elikagai-kateko gaiekin egindako animalia-subproduktu hauei aplikatuko zaie:

a) Hildako animaliei dagokienez, indarreango arauekin arabera, gizakiek jateko egokitzat jotzen diren parteak izan arren, merkataritzako arazoak direla-eta hartarako erabiltzen ez direnak.

b) Gizakiak elikatzeko diren produktuak egitearen ondoriozko animalia-produktuak, hezur koipez gabetuak eta txitxarroiak barne direla.

c) Animalietatiko elikagaiak edo animalietatiko produktuak dituztenak —sukaldeetako hondakinak izan ezik—, hasiera baten gizakien janaritarako direnak, baina geroztik animaliek kontsumitzeko bideratzen direnak, hain justu ere merkataritzako arazoak direla-eta edo fabrikazio problemak edo ontziratzea akatsak edo beste era batekoak direla-eta, betiere gizakientzako edo animalientzako ezelako arriskurik ez badakarte.

d) Odola, larruak, apatxak, lumak, atileak, adarrak, zurdak eta ilea, betiere delako produktuaren bitartez gizakiei eta animaliei pasa dakiekeen ezein gaixotasunaren zeinu klinikorik ez duten animalietatikoak.

2.– Animalia-subproduktu hauei ez zaie aplikatuko.

a) Arriskuko material espezifikoak.

b) Dekomisoak.

c) Animalia hilak.

d) Txikizkako salmenta egiten den saltegitatiko edo saltokien inguruetako lokaletatiko janari gordinak, animalientzako direnak, baldin eta aipatu tegietan zatiketa eta gordeketa kontsumitzailea in situ hornitzeko baino ez badira egiten.

*3. artikulua.–* Definizioak.

Dekretu hau aplikatzearen ondorioetarako, ondoko terminoak eta definizioak ezartzen dira:

a) Arriskuko material espezifikoak (AME). Ondokoak jotzen dira arriskuko material espezifikotzat:

– Garezurra, masailezurra kanpo eta barne direlarik zerebroa eta begiak, bizkarrezurra, kanpo direlarik buztaneko ornoak, orno lunbarretako eta orno torazikoetako apofisi zeharkakoak eta sakroko hegalak, baina barru direlarik 12 hilabetez gorako behi-azienden sustrai dortsaleko gongoilak eta bizkarrezur-muina eta bai edozein adinetako behi-azienden mesenterioa, duodenotik ondestera arteko hesteak eta amigdalak ere.

– Hamabi hilabetetik gorako ardi- eta ahuntz-azienden edo oian behin betiko ebakortza sortu zaienen bizkarrezur-muna, amigdalak, eta garezurra, barne direlarik zerebroa eta begiak. Eta edozein adinetako ardi- eta ahuntz-azienden ileoa eta barea.

*Artículo 2.–* Ambito de aplicación.

1.– Se aplicará a los siguientes subproductos animales generados por los sujetos de la cadena alimentaria de productos cárnicos:

a) Todas las partes de animales sacrificados que se consideren aptos para el consumo humano de conformidad con la normativa vigente, pero no se destinen a ese fin por motivos comerciales.

b) Productos animales derivados de la elaboración de productos destinados al consumo humano, incluidos los huesos desgrasados y los chicharrones.

c) Productos alimenticios de origen animal o que contengan productos de origen animal, exceptuados los residuos de cocina, inicialmente destinados al consumo humano, pero reorientados hacia el consumo animal por motivos comerciales o debido a problemas de fabricación o defectos de envasado o de otra índole, que no supongan ningún riesgo para los seres humanos o los animales.

d) Sangre, pieles, pezuñas, plumas, lana, cuernos, cerdas y pelo procedentes de animales que no presenten signos clínicos de ninguna enfermedad transmisible a través de ese producto a los seres humanos o los animales.

2.– No se aplicará a los siguientes subproductos animales:

a) Los materiales especificados de riesgo.

b) Decomisos.

c) Animales muertos.

d) Los alimentos crudos para animales de compañía originarios de comercios de venta al por menor o de locales contiguos a los puntos de venta, en los que el despiece y el almacenamiento se realicen con el único fin de abastecer directamente in situ al consumidor.

*Artículo 3.–* Definiciones.

A los fines de la aplicación del presente Decreto, se establecen los términos y definiciones siguientes:

a) Materiales especificados de riesgo (MER). Se entienden por materiales especificados de riesgo los siguientes:

– El cráneo, excluida la mandíbula e incluidos el cerebro y los ojos, la columna vertebral, excluidas las vértebras del rabo, las apófisis transversas de las vertebral lumbares y torácicas y las alas del sacro, pero incluidos los ganglios de raíz dorsal y la médula espinal de los bovinos de más de 12 meses, así como las amígdalas, los intestinos, desde el duodeno hasta el recto, y el mesenterio de los bovinos de todas las edades.

– El cráneo, incluidos el cerebro y los ojos, las amígdalas y la médula espinal de los ovinos y caprinos de más de doce meses de edad o en cuya encía haya hecho erupción un incisivo definitivo, el bazo y el íleo de los ovinos y caprinos de todas las edades.

– Edozein adinetako ardi-, ahuntz- eta behi-azienden hilotzak.

– Arriskuko material espezifikoen eraginez kutsatuta dagoen edo taxuketa arazoengatik bereizten zaila den beste edozein material ere arriskuko material espezifikotzat hartuko da, eta, hortaz, neurri eta baldintza berberen pean egongo da.

b) Dekomisoak: hilarazitako animaliak edo euren parteak, Osasun Saileko albaitari ofizialaren ebazpenaren arabera gizakiek jateko balio ez dutenak.

c) Animalia hilak edo hilotzak: kausa komunen bat edo kausa zoosanitarioak direla-eta hildako animaliak eta hilarazi direnak, baina gizakiek kontsumitzeko ez direnak.

d) Animalia-subproduktuak: kanal osoak edo animalien parteak edo dekretu honetako 2. artikuluan aipatutako animalia-produktuak, gizakiek kontsumitzeko ez direnak.

e) Konpainiako animaliak: ohiko eran hazi eta mantendutako espezietako animaliak, baina gizakiek, abeltzaintzarekin zerikusirik ez duten helburuetarako erabiltzen ez dituztenak.

f) Merkaturatzea: animalia-subproduktuak edo animalietatiko produktuak —dekretu honen aplikazio-eremuan sartzen direnak— salketak eginez hirugarren bati emateko diren operazioak, edo hirugarren bati egindako beste edozein lagapen —doaneko edo kostu bidezkoa—, eta bai hirugarren bat hornitzeko aipatu produktuak biltegiratzea ere.

g) Produktu teknikoak: animalia-subproduktu batzuetatiko produktuak, animaliek edo gizakiek kontsumitzeko barik beste helburu batzuetarako erabiltzen direnak; eta horiek artekoak dira: larru onduak eta tratatuak, ehizako trofeoak, ileki eraldatuak, ilea, zurda, lumak eta lumen parteak, produktu hemoderibatuak, botikak, hezurrezko produktuak portzelanetarako direnak, gelatina eta kola.

h) Planta teknikoa: produktu teknikoak ekoizten dituen planta.

*4. artikulua.–* Baimendutako erabilerak.

Dekretu honetako 2.1 artikuluan aipatutako subproduktuek izan beharko dituzten erabilerak, ondoren zehaztutako posibilitateen artekoak izango dira, betiere erabilira bakoitzean aplikatuko beharreko araudiaren bat etorriaz.

a) Baimendutako planta baten egindako eraldaketa, ondoren balorizazio energetikoa egiteko, hain justu ere azaroaren 27ko 329/2001 Dekretuan ezarritako baldintzetan.

b) Konpainiako animalientzako janariak egiteko fabrika baimenduetan lehengaitzat erabiltzea.

– Los cadáveres de los bovinos, ovinos y caprinos de cualquier edad.

– Cualquier otro material que presente contaminación adicional por MER o que no pueda diferenciarse por trazabilidad, tendrá asimismo consideración de material especificado de riesgo, y estará sujeto por tanto a las mismas medidas y condiciones.

b) Decomisos: Los animales sacrificados, o partes de los mismos, dictaminados como no aptos para el consumo humano por el veterinario oficial del Departamento de Sanidad.

c) Animales muertos o cadáveres: Los animales muertos por razones zoosanitarias o causa común, así como los que han sido sacrificados, pero cuyo destino no sea el consumo humano.

d) Subproductos animales: Las canales enteras o partes de animales o los productos de origen animal mencionados en el artículo 2 del presente Decreto, no destinados al consumo humano.

e) Animales de compañía: Animales pertenecientes a las especies normalmente criadas y mantenidas pero no consumidas por el hombre con fines no relacionados con la ganadería.

f) Comercialización: Toda operación dirigida a suministrar a un tercero subproductos animales o productos derivados de los mismos incluidos en el ámbito de aplicación del presente Decreto con vistas a su venta, o cualquier otra forma de cesión a un tercero a título oneroso o gratuito, así como el almacenamiento de dichos productos con vistas a su suministro a un tercero.

g) Productos técnicos: Productos derivados de algunos subproductos animales, destinados a fines distintos del consumo humano o animal; en ellos se incluyen las pieles curtidas y tratadas, los trofeos de caza, la lana transformada, el pelo, las cerdas, las plumas y partes de plumas, los productos hemoderivados, los productos farmacéuticos, los productos a base de huesos para porcelanas, la gelatina y la cola.

h) Planta técnica: Planta que produce productos técnicos.

*Artículo 4.–* Destinos permitidos.

El destino que deberá darse a los subproductos mencionados en el artículo 2.1 del presente Decreto, consistirá en alguna de las posibilidades que a continuación se indican, de acuerdo con la normativa en cada caso aplicable para los distintos usos:

a) Transformación en una planta autorizada para su posterior valorización energética en las condiciones establecidas en el Decreto 329/2001, de 27 de noviembre.

b) Utilización como materia prima en fábricas autorizadas para la elaboración de alimentos para animales de compañía.

c) Azaroaren 27ko 329/2001 Dekretuan ezarritako baldintzekin bat etorriaz betiere, hartarako baimendutako erraustegi baten egindako ezabaketa.

d) Baimendutako planta teknikoan egindako eraldaketa.

e) Konpostajeko edo biogaseko plantan egindako eraldaketa.

f) Baimendutako plantetan, pentsuen materialak egiteko eraldaketa.

h) Hegazti harrapari nekrofagoak elikatzea.

*5. artikulua.–* Erantzuleak.

Dekretu honetako 2 1 artikuluan aipatu animalia-subproduktuak egiten dituztenek izango dute ondokoaren erantzukizuna: direlako subproduktuak, bildu eta garraia ditzan, baimendutako enpresetariko bati entregatzearena.

II. KAPITULUA.

SUBPRODUKTUAK BILDU ETA GARRAIATZEA

*6. artikulua.–* Baimena.

1.– Xedapen honen gai diren animalia-subproduktuak erretiratu eta garraiatu egin ahal izango dituzte hartarako baimena duten enpresek, eurek bakarrik hain justu ere. Edonola ere, direlako subproduktuak ezingo izango dira hiri-hondakin kontsideratu, hortaz ezin izango dira laga hiri-hondakinentzat prestatutako espazioetan edo edukiontzietan.

2.– Arrantza eta Nekazaritza Saileko Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari dagokio baimena ematea aipatu enpresei, betiere dagokion foru aldundiak txostena egin ondoren.

3.– 4. artikuluan aipatutako baimendun plantetariko batera eraman beharko dituzte subproduktuak enpresa baimenduek, edo bitarteko plantetara edo baimendutako biltegietara. Bestalde, enpresa horiek, egutegia eta ibilbide-orriak aurkeztu beharko dituzte.

*7. artikulua.–* Ibilbidea.

Sortzen direneko establezimenduetatik destinoko planta baimenduetara edo bitarteko plantetara edo biltegi baimenduetara garraiatu beharko dira animalia-subproduktuak, betiere Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari aurkeztutako egutegiarekin eta ibilbidearekin bat etorriaz.

*8. artikulua.–* Higiene-arauak.

1.– Ibilgailuek eta edukiontziek honako higiene-arauak izan beharko dituzte:

– Gizakien edo animalien osasunerako arriskurik ez sortzearren, ibilbide guztian tenperatura egokia izateko eta mantentzeko eran egon beharko dute diseinaturik.

c) Eliminación directa en una planta incineradora autorizada al respecto, en las condiciones establecidas en el Decreto 329/2001, de 27 de noviembre.

d) Transformación en una planta técnica autorizada.

e) Transformación en una planta de biogás o compostaje autorizada.

f) Transformación en materiales para piensos en plantas autorizadas.

h) Alimentación de aves rapaces necrófagas.

*Artículo 5.–* Responsables.

Los generadores de los subproductos animales mencionados en el artículo 2.1 del presente Decreto, serán los responsables de la entrega de los mismos a alguna de las empresas autorizadas para su recogida y transporte.

CAPÍTULO II

RECOGIDA Y TRANSPORTE DE LOS SUBPRODUCTOS

*Artículo 6.–* Autorización.

1.– Los subproductos animales objeto de la presente disposición, únicamente podrán ser retirados y transportados por empresas autorizadas al respecto. En ningún caso dichos subproductos podrán ser asimilables o considerados residuos urbanos, por lo que no podrán ser depositados en los contenedores o espacios habilitados para los residuos urbanos.

2.– Corresponderá a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria del Departamento de Agricultura y Pesca conceder las autorizaciones a dichas empresas, previo informe de la Diputación Foral correspondiente.

3.– Las empresas autorizadas destinarán los subproductos a una de las plantas de destino autorizadas de las mencionadas en el artículo 4 o a plantas intermedias o almacenes autorizados, y presentarán un calendario y rutas de recogida.

*Artículo 7.–* Trayecto.

El transporte de los subproductos animales se realizará de los establecimientos que los generen a las plantas de destino autorizadas o a plantas intermedias o almacenes autorizados, según el calendario y las rutas presentadas ante la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria del Departamento de Agricultura y Pesca.

*Artículo 8.–* Normas de higiene.

1.– Los vehículos y/o contenedores deberán cumplir las siguientes normas de higiene:

– Estarán diseñados de tal manera que posean y mantengan una temperatura adecuada durante el trayecto a fin de evitar todo riesgo para la salud humana o animal.

– Inolako galtzerik ez izateko modukoak izan beharko dute.

– Behar bezala estalirik egon beharko dute.

2.– Ibilgailuak, lona iragazgaitzezko estalkiak eta berrerabiltzeko edukiontziak garbitu eta desinfektatu egin beharko dira erabiltzen diren bakoitzean, eta garbi mantendu beharko dira.

*9. artikulua.–* Agiriak.

1.– Garraiatzen diren bitartean, xedapen honen eranskinean zehaztutako agiriarekin batera eraman beharko dira animalia-subproduktuak, eta agiri horrek behar bezala beteta egon beharko du. Aipatu agiri izan ezean, ondoko informazioa duen agiria izan beharko da:

– Materiala lokaletatik ateratzen deneko eguna.

– Materialaren deskripzioa.

– Materialaren nolakotasuna, ondoko zehaztapenarekin «gizakiek jateko ez diren animalia-subproduktuak».

– Material kopurua.

– Materialaren jatorria, enpresaren identifikaziorekin.

– Garraiolariaren izena eta helbidea.

– Materiala jasoko duenaren izena eta helbidea.

2.– Agiri honen hiru ale aurkeztu beharko dira (originala eta kopia bi).

Bidalketan, destinora ailegatu arte, originala izan beharko da, eta destinoan jasotzaileari entregatu beharko zaio. Kopietariko bat jatorriko enpresarentzat izango da, eta bestea garraiolariaren eskutan egongo da.

*10. artikulua.–* Agiriak erregistratzea.

1.– Animalia-subproduktuak sortzen dituztenek, garraiolariek eta haiek jasotzen dituztenek artxibaturik izan behako dituzte, subproduktuok direla-eta, eurek emandako agiri guztiak, gutxienez bi urtez eduki ere.

2.– Herri-administrazioetako kontrol-agenteek edozein unetan eska ditzakete aipatu agiriak.

III. KAPITULUA

BITARTEKO PLANTAK ETA BILTEGIAK

*11. artikulua.–* Baimendu behar dituen agintaritza eskuduna.

Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzaren baimena behar dute animalia-subproduktuentzako biltegiek eta bitarteko plantek, eta foru aldundi egokiak egindako txostenaren ondoren emango du ebazpena aipatu zuzendaritzak.

– Serán adecuados para evitar cualquier tipo de pérdidas.

– Estarán adecuadamente cubiertos.

2.– Los vehículos, las cubiertas de lona impermeable y los contenedores reutilizables deberán limpiarse y desinfectarse después de cada utilización y mantenerse limpios.

*Artículo 9.–* Documentación.

1.– Durante el transporte, los subproductos animales irán acompañados del documento de acompañamiento recogido en el Anexo de la presente disposición debidamente cumplimentada o de otro documento que contenga al menos la siguiente información:

– Fecha en la que el material sale de los locales.

– La descripción del material.

– La naturaleza del material, mediante la siguiente indicación «subproductos animales no aptos para el consumo humano».

– La cantidad de material.

– El lugar de origen del material, con identificación de la empresa.

– El nombre y la dirección del transportista.

– El nombre y la dirección del destinatario del material.

2.– Este documento deberá presentarse por triplicado (el original y dos copias).

El original deberá acompañar al envío hasta su destino y ser entregado al destinatario. Una de las copias será para la empresa de origen, y la otra permanecerá en poder del transportista.

*Artículo 10.–* Registro de documentos.

1.– Los generadores de subproductos animales así como los transportistas y los receptores de los mismos, deberán mantener archivada, durante un periodo mínimo de dos años, toda la documentación por ellos expedida que acompaña a dichos subproductos animales.

2.– Dicha documentación podrá ser exigida, en cualquier momento, por los agentes de control de las Administraciones Públicas.

CAPÍTULO III

PLANTAS INTERMEDIAS Y ALMACENES

*Artículo 11.–* Autoridad competente para su autorización.

Las plantas intermedias y los almacenes de subproductos animales estarán sujetos a la autorización de la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria del Departamento de Agricultura y Pesca, que resolverá previo informe de la Diputación Foral correspondiente.

*12. artikulua.–* Baimena emateko betekizunak.

Biltegien eta bitarteko planten lokalek zein instalazioek gutxienez honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Erabilera hauek bakarrik izango dituzte: animalia-subproduktuei dagokienez, bilketa, biltegiratzea, bloketan izoztea, hoztea, zatiketa eta bilketak egitea.

b) Bide publikoetatik edo hiltegiak bezalako lekuetatik distantzia egokira kokatuak egotea, eta, halaber, dekretu honetan arautzen ez diren animalia-subproduktuak biltegiratzeko beste lokal batzuetatik.

c) Animalia-subproduktuak hartzeko espazio estali bat edukitzea.

d) Garbitzeko eta desinfektatzeko era jasotzen duten planoen arabera eraikitakoak izatea. Bestalde, likidoen ebakuazioa egiteko eran eraikitakoak izan beharko dute.

e) Langileentzako komunak, jantzitegiak eta konketak —egokiak— izatea.

f) Izurrei —intsektuei, marraskariei, hegaztiei etab— aurre egiteko dispositibo egokiak edukitzea.

g) Hondakin-urak ebakuatzeko dispositiboa, higiene-baldintzak betetzen dituena, edukitzea.

h) Animalia-subproduktuak tenperatura egokian mantentzeko ahalmena eta tenperatura kontrolatua dituzten instalazioak edukitzea. Eta euren segimendua eta miaketa egiteko eran diseinaturikoak izatea aipatu instalazioak.

i) Animalia-subproduktuak hartzeko ontziak zein edukiontziak eta aipatu subproduktuak garraiatzeko ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko instalazio egokiak edukitzea.

j) Ibilgailuen gurpilak desinfektatzeko instalazio egokiak edukitzea.

*13. artikulua.–* Biltegiratzeko eta manipulatzeko baldintzak.

1.– Biltegiratzean, animalia-subproduktuak betiere honela manipulatu eta gorde beharko dira: gaixotasunak ez hedatzeko eran.

2.– Animalia-subproduktuak egoki gorde beharko dira, eta, beharrezkoa bada, berriro bidali arte hoztuta edo izozturik mantendu beharko dira.

3.– Animalia-subproduktuak garraiatzeko erabilitako edukiontziak eta ibilgailuak eta bai material horrekin kontaktuan izan diren lanabesak eta ekipoak ere, erabiltzen diren bakoitzeko garbitu eta desinfektatu egin beharko dira.

*Artículo 12.–* Requisitos para la concesión de la autorización.

Los locales e instalaciones, tanto de las plantas intermedias como de los almacenes, deberán cumplir, como mínimo, las condiciones siguientes:

a) Destinarse, únicamente, a la recogida, el troceado, la refrigeración, la congelación en bloques, el almacenamiento temporal así como a la expedición de los subproductos animales.

b) Hallarse a una distancia adecuada de las vías públicas u otros lugares como los mataderos, así como de otros locales destinados a almacenar otros subproductos de origen animal no regulados en el presente Decreto.

c) Disponer de un espacio cubierto para recibir los subproductos animales.

d) Estar construidos con arreglo a unos planos que faciliten su limpieza y desinfección. Asimismo, los suelos deberán estar construidos de una manera que facilite la evacuación de los líquidos.

e) Disponer de servicios, vestuarios y lavabos adecuados para el personal.

f) Contar, asimismo, con dispositivos apropiados de protección contra las plagas, como insectos, roedores, aves, etc.

g) Contar con un dispositivo de evacuación de aguas residuales que cumpla con las condiciones de higiene.

h) Disponer de instalaciones adecuadas que tengan una temperatura controlada y la suficiente capacidad para mantener los subproductos animales a la temperatura apropiada, y que estén diseñados de tal manera que pueda efectuarse el seguimiento y el registro de la misma.

i) Disponer de instalaciones adecuadas para limpiar y desinfectar los contenedores o recipientes en los que reciban los subproductos animales y los vehículos en los que se transporten.

j) Disponer de las instalaciones adecuadas para la desinfección de las ruedas de los vehículos.

*Artículo 13.–* Condiciones de manipulación y almacenamiento.

1.– Durante su almacenamiento, los subproductos animales deberán manipularse y almacenarse, en todo momento de manera que se evite la propagación de enfermedades.

2.– Los subproductos animales deberán almacenarse adecuadamente y, mantenerse refrigerados o congelados, si procede, hasta su reexpedición.

3.– Los vehículos y contenedores utilizados para el transporte de subproductos animales, así como todos los equipos y/o utensilios que hayan estado en contacto con ese material, deberán limpiarse, lavarse y desinfectarse después de cada uso.

IV. KAPITULUA

SUBPRODUKTUEN DESTINO-PLANTAK

*14. artikulua.–* Baimenak.

4. artikuluan aipatutako destino-plantek indarreango arauetan kasuan kasurako eskatzen diren baimenak eta erregistroak izan beharko dituzte, hain justu ere arlo sanitarioari eta industrialari dagokienez eta bai ingurumenari eta hirigintzari dagokienez zein eragiten zaion beste arloen bati dagokionez ere.

V. KAPITULUA

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

*15. artikulua.–* Arau-hausteak eta zehapenak.

1.– Dekretu honetako aginduak ez betetzeak, administrazio arau-haustea denez gero, zehapen egokia eragingo du, betiere indarreango arauetan ezarritakoarekin bat.

2.– Zehapen-prozedurari dagokionez, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozeduraren azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa errespetatu beharko da, eta bai Herri-Administrazioek Zehatzeko duten Ahalmenaren otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa eta aplikatu daitezkeen gainontzeko arauak ere.

3.– Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko Legearekin, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuarekin, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 2ko 65/1999 Dekretuarekin, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen uztailaren 28ko 160/2000 Dekretua eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen maiatzaren 11ko 218/199 Dekretuarekin bat etorriaz baliatu du zehatzeko ahalmena organo eskudunak.

4.– Arau-haustearen izariaren arabera eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorriaz, jarduera gauzatzeko baimena galdu, deuseztatu edo aldi baterako etetea ebatzi daiteke, edo enpresaren, establezimendu-instalazioaren, ustiategiaren edo industriaren itxiera ebatzi daiteke.

5.– Artikulu honetan xedatutakoak ez dio kontra egiten osasun publikoaren aurkako delituengatiko erantzukizun kriminalari.

CAPÍTULO IV

PLANTAS DE DESTINO DE LOS SUBPRODUCTOS

*Artículo 14.–* Autorizaciones.

Todas las plantas de destino mencionadas en el artículo 4 deberán contar, en cada caso, con las autorizaciones y registros que exija la normativa vigente de índole sanitaria, industrial, medioambiental, urbanística o la que, por materia, corresponda al respecto.

CAPÍTULO V

RÉGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 15.–* Infracciones y sanciones.

1.– El incumplimiento de los preceptos del presente Decreto podrá constituir infracción administrativa y dará lugar a la correspondiente sanción, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

2.– En cuanto al procedimiento sancionador se estará a lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y demás normativa aplicable.

3.– La potestad sancionadora será ejercida por el órgano competente de acuerdo con el presente Decreto, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad autónoma y los Órganos forales de sus Territorios Históricos, el Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, el Decreto 65/1999, de 2 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, el Decreto 160/2000, de 28 de julio, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio, y Medio Ambiente y el Decreto 218/1999, de 11 de mayo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca.

4.– En función de la gravedad de la infracción podrá adoptarse, de acuerdo con la legislación aplicable, la suspensión temporal, anulación o pérdida de la autorización para el ejercicio de la actividad que se trate, o el cierre de la empresa, instalación establecimiento, explotación o industria

5.– Lo dispuesto en este artículo se entiende, sin perjuicio de la posible responsabilidad criminal por delitos contra la salud pública.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honetan aipatutako baimenetarikoren bat duten operatzaileek, hark indarra hartzen duenetik harako hiru hilabeteko epearen barruan, euren baimenak eguneratzeko eskatu beharko diote Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari; eta foru aldundiek txostena egin ondoren eta dekretu honetan xedatutakoa bete izana egiaztatu ondoren, erantzungo dio eskabideari zuzendaritza horrek.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Euren eskumenen barruan eta dekretu hau garatu eta aplikatzeko eta dekretu honetako eranskina aldatzeko ahalmena ematen zaie Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, Osasun sailburuari, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuari eta Nekazaritza eta Arrantza sailari, hartarako beharrezko xedapenak ematekoa hain zuzen ere.

***Bigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Osasun sailburua,
GABRIEL Mª INCLÁN IRIBAR.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

Arrantza eta Nekazaritza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Los operadores que cuenten con alguna de las autorizaciones a las que hace referencia el presente Decreto, deberán solicitar, en el plazo de tres meses a partir de su entrada en vigor, la actualización de sus correspondientes autorizaciones a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria, que la concederá, previo informe de las Diputaciones Forales, una vez acreditado el cumplimiento de lo dispuesto en el mismo.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta a los Consejeros de Industria, Comercio y Turismo, de Sanidad, de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente y de Agricultura y Pesca para dictar, mediante Orden, en el ámbito de sus competencias, las disposiciones necesarias para el desarrollo y la aplicación del presente Decreto, así como para modificar el Anexo que figura en el mismo.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL Mª INCLÁN IRIBAR.

Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

ERANSKINA ondoko dekretuarena: 198/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko industrietan eta saltegietan sortzen diren eta gizakiek jateko ez diren animalia-subproduktuei buruzkoa

GIZAKIEK KONTSUMITZEKO EZ DIREN OKELAZKO SUBPRODUKTUEKIN ERABILI BEHARREKO AGIRIA: SORTZEA, GARRAIOA ETA TRATAMENDUA/EZABAKETA.

A) JATORRIA: (Subproduktua sortu duen entitatea edo enpresa).

Izena/Sozietatearen izena: .................................................. Sanit. Erreg. zk ..................................

Herria: .................................................. LH: ..............................Tel: ...............................

MATERIALAREN IDENTIFIKAZIOA:

| Deskripzioa, zein material den zehaztuaz | Deskripzioa | Pisua (kg) |
|---|---|---|
| Hildako animalien parteak (gizakiek kontsumitu ditzaketenak, baina merkataritzako zioak direla-eta hartarako erabiltzen ez direnak). | | |
| Gizakiak elikatzeko produktuak egitearen ondoriozko animalia-subproduktuak, txitxarroiak eta hezur koipez gabetuak barne. | | |
| Animalietatiko elikadura-produktuak edo animalietatiko produktuak dituztenak, eta arriskurik ez izanik animalien janari izatera bideratzen direnak. | | |
| Odola, larruak, apatxak, lumak, artileak, adarrak, zurdak eta ilea, betiere, delako produktuaren bitartez gizakiei eta animaliei pasa dakiekeen ezein gaixotasunaren zeinu klinikorik ez duten animalietatikoak. | | |
| BIDALITAKO SUBPRODUKTUAK GUZTIRA | | |

B) GARRAIOA:

Izena/Sozietatearen izena: ............................................ Ibilgailuaren matrikula: ............................

Tel:...................................... Noiz bidali zen: ........./.............../.....................

C) DESTINOA: (Entitate hartzailea : Baimendutako destino-planta).

Izena/Sozietatearen izena:................................................................. Ind. Erreg. zk.: ...............

Herria:..........................................................................................................................

LH:.............................................. Tel:..........................................................................

Noiz jaso zen:......................../.........................../.......................

| JATORRIA | GARRAIOA | DESTINOA |
|---|---|---|
| Eguna:<br><br>Sinadura:<br><br>Zigilua: | Eguna:<br><br><br><br>Sinadura: | Eguna:<br><br>Sinadura:<br><br>Zigilua: |

(betetako hiru ale aurkeztu beharko dira)

*ANEXO al DECRETO 198/2003, de 29 de julio, de subproductos animales no destinados al consumo humano generados en las industrias y comercios de la Comunidad Autónoma del País Vasco*

*DOCUMENTO DE ACOMPAÑAMIENTO DE SUBPRODUCTOS CÁRNICOS NO DESTINADOS AL CONSUMO HUMANO: GENERACIÓN, TRANSPORTE Y TRATAMIENTO/DESTRUCCIÓN.*

*A) PROCEDENCIA: (Empresa o entidad generadora del subproducto).*

*Nombre/Razón Social: .................................................. Nº Reg. Sanitario:.........................*

*Localidad: ..................................................... TH: .................. Tfno: .......................*

*IDENTIFICACIÓN DEL MATERIAL:*

| *Descripción indicando el material de que se trata* | *Descripción* | *Peso (kg)* |
|---|---|---|
| *Partes de animales sacrificados (aptas para el consumo humano no destinados a este fin por motivos comerciales).* | | |
| *Subproductos animales derivados de la elaboración de productos destinados al consumo humano, incluidos los huesos desgrasados y los chicharrones* | | |
| *Productos alimenticios de origen animal o que contengan productos de origen animal reorientados hacia el consumo animal que no supongan ningún riesgo.* | | |
| *Sangre, pieles, pezuñas, plumas, lana, cuernos, cerdas y pelo procedentes de animales que no presenten signos clínicos de ninguna enfermedad transmisible a través de ese producto a los seres humanos o los animales.* | | |
| *TOTAL DE SUBPRODUCTOS ENVIADOS* | | |

*B) TRANSPORTE:*

*Nombre/Razón Social:................................................ Matrícula del vehículo:.....................*

*Tfno:....................................... Fecha de expedición: ......................./......................./...................*

*C) DESTINO: (Entidad receptora : Planta de destino autorizada).*

*Nombre/Razón Social:................................................................ Nº Reg. Ind.: ............*

*Localidad:.......................................................................................................................*

*TH:............................................Tfno:..............................................................................*

*Fecha de recepción:....................../......................../..................*

| *PROCEDENCIA* | *TRANSPORTE* | *DESTINO* |
|---|---|---|
| *Fecha:*<br><br>*Firma:*<br><br>*Sello:* | *Fecha:*<br><br>*Firma:*<br><br>*Firma:* | *Fecha:*<br><br>*Firma:*<br><br>*Sello:* |

*(Cumplimentar por triplicado ejemplar)*